



Alef

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN
LABORATEGIA / LABORATORIO
SAN TELMO MUSEOA

Kimia Kamvari
2022-11-25 / 2023-02-05

Kimia Kamvari artistaren erakusketarekin bere hirugarren ediziora iristen den **Artea abian** ekimenaren bitartez, Kutxa Fundazioak eta San Telmo Museoa laguntza eta babesa eskaini nahi diete, beren ibilbide profesionalaren lehen urteetan egonik, beren obraren aurkezpen monografiko bati heltzeko behar adinako esperientzia duten artistei. Helburu nagusia zera da, artista horiei gune instituzional batean edo museo batean lehen erakusketa indibidual bat egiteko aukera ematea, arte plastikoaren eta ikusmen-artearen testuinguruan nabari den premia bati erantzun bat eman nahian, artisten erakusketetarako guneak eta aukerak abian jarritz.

Kimia Kamvariaren erakusketa, **Alef**, bi zatitan egituratzen da. Lehenengoan, hondoratze dolinetan oinarritutako argazki serie bat aurkezten da. Artista 2019an hasi zen argazkiak ateratzen Irango lautadan zehar. Serieak lurra- ren lehortasunak tamaina desberdineko zuloak eragiten dituen fenomeno geologiko honen 73 argazki biltzen ditu. Barrunbe horiei kamera estenopeiko batekin argazkiak ateratzea erabaki izanak areagotu egiten du dolinei begiratzeko ekintza: gertakari fotografikoa gertakari geologikoari erantzen zaio.

Erakusketaren bigarren zatia zuhaitz baten inguruan egituratzen da, zumearen inguruan. Zuhaitz horren materialtasuna 80 kilo zume-egurreko egur-ikatzaren bidez ikus daiteke aretoan, eta haren irudikapena, berriz, hainbat marrazkitan. Horien artean bat nabarmentzen da, museoko bildumako ikatz-zirizko arkatz bakarrarekin marraztu dena.

Alef persiar, arabiar eta hebreerazko alfabetoaren lehen letra da, eta *El Aleph* ere Borges en ipuin ezaguna da. Letra gisa eta elementu narratibo gisa, **Alefe** hasiera sinbolizatzen du, aukera amaigabeak biltzen dituen energia. **Alef Azadi** hitzaren lehen letra ere bada (Irango azken asteetako protestetan entzuten den *Zan, Zendegi, Azadi* -Emakumea, Bizitza, Askatasuna- leloaren parte da).

Kimia Kamvari (Kolonbia, 1986) Pintura lizentziaduna da Teherango Arte eta Arkitektura Unibertsitatean, eta lerketa eta arte sorkuntza masterra egin du EHU-n. 2006tik talde erakusketa askotan parte hartu du, eta azken urteotan baita bakar-kako erakusketetan ere, Dastan Galleryn (Teheran) eta Cristina Enean (Donostia). Egoitzak egin ditu Tabakaleran (2017) eta Sormenaren Kabian (2018). Bere azken erakusketetan, *Apeiron* (Dastan Gallery, 2018), *Nature Change* (Cristina Enea Fundazioa, 2019) eta *Event Horizon* (Dastan Gallery, 2019), estilo eta kontzeptu aldaketa nabari da bere obran, non naturak eta aldaketak paper nagusia jokatzen duten. Azpimarratzekoa da 2015etik Astigarretan izan duen egonaldi luzeak izan duen eragina, leku horretan bere lana irauli egin baita kontzeptualki. Bere azken lanetan material organikoaren, instalazioaren, argazki-gintzaren eta marrazkiaren erabilera nabarmentzen da.



Mediante el programa **Artea abian**, que llega a su tercera edición con la participación de Kimia Kamvari, Kutxa Fundazioa y San Telmo Museoa pretenden ofrecer apoyo y respaldo a artistas que, encontrándose en los primeros años de su trayectoria profesional, cuentan con la experiencia suficiente para afrontar una presentación monográfica de su obra. El objetivo principal consiste en facilitar la realización de una primera exposición individual en un espacio institucional o museístico. Con ello se da respuesta a una necesidad en el contexto de las artes plásticas y visuales, con la implementación de espacios y oportunidades de exposición para los artistas.

La exposición de Kimia Kamvari, **Alef**, se estructura en dos partes. En la primera se presenta una serie fotográfica centrada en las dolinas de hundimiento, que la artista comenzó a fotografiar en 2019 a lo largo de la meseta iraní. La serie reúne 73 fotografías de este fenómeno geológico en el que la sequedad de la tierra termina provocando agujeros de muy diferentes dimensiones. El hecho de haber decidido fotografiar estas cavidades con una cámara estenopéica intensifica el acto de mirar las dolinas: el accidente fotográfico se acopla al accidente geológico.

La segunda parte de la exposición se articula en torno a un árbol, el sauce, cuya materialidad está presente en la sala a través de 80 kilos de carboncillo de madera de sauce, mientras que su representación se plasma en una serie de dibujos. Entre ellos destaca uno, que ha sido dibujado con el único lápiz de carboncillo de la colección del museo.

Alef es la primera letra del alfabeto persa, árabe y hebreo y *El Aleph* es también un conocido cuento de Borges. Como letra y como elemento narrativo, **Alef** simboliza el comienzo, la energía que encierra infinitas posibilidades. **Alef** es también la primera letra de la palabra *Azadi* (forma parte del lema *Zan, Zendegi, Azadi* -Mujer, Vida, Libertad-, que se escucha en las protestas de las últimas semanas en Irán).

Kimia Kamvari (Colonia, 1986) es licenciada en Pintura por la Universidad de Arte y Arquitectura de Teherán y ha cursado el máster Investigación y creación en arte en la UPV-EHU.

Desde 2006 ha participado en numerosas exposiciones colectivas, y en los últimos años también en exposiciones individuales en Dastan Gallery (Teheran) y en Cristina Enea (Donostia). Ha realizado residencias en Tabakalera (2017) y Sormenaren Kabia (2018).

En sus últimas exposiciones, *Apeiron* (Dastan Gallery, 2018), *Nature Change* (Fundación Cristina Enea, 2019) y *Event Horizon* (Dastan Gallery, 2019), se evidencia un cambio de estilo y concepto en su obra en el que la naturaleza y el cambio juegan un papel importante. Cabe destacar la influencia que ha tenido su prolongada estancia en Astigarreta desde 2015, lugar donde su trabajo ha dado un vuelco conceptual. En sus últimos trabajos destaca el uso de material orgánico, de la instalación, de la fotografía y del dibujo como medio.



ORDUTEGIA

Asteartetik igandera
10:00-19:00
Astelehenetan itxita,
jaiegunetan zabalik.

LABORATEGIA
SARRERA DOHAINIK

HORARIO

De martes a domingo
10:00-19:00

Lunes cerrado,
festivos abierto.

LABORATORIO
ENTRADA GRATUITA

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus
santelmo@donostia.eus
[@santelmomuseoa](https://www.instagram.com/santelmomuseoa)



Antolatzaile / Organizan



Erakunde babesleak / Instituciones socias

